



AGINDUA, JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORDEA ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA HASIERA EMATEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTURA-SISTEMAREN LEGE-AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI.

Kultura funtsezko zutabea da Euskadiren gizarte-kohesiorako eta garapen jasangarrirako. Euskal kultura-ekosistemak heldutasun-maila handia lortu du, ekipamendu-sareekin, plangintza estrategikoarekin eta eragile publiko eta pribatuekin. Hala ere, kultura-sistema osoa antolatuko duen arau orokorrik ez dagoenez, lege bat egin behar da, esparru juridiko-politiko egonkor bat emango duena eta erakundeen arteko koordinazio egokia eta eragile publiko zein pribatuen arteko lankidetzat publikoa bermatuko dituen.

Dekretu-proiektua egiteko eta izapidetzeko prozedurak arau hauetan jasotako preskripzioak bete beharko ditu:

- a) 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena (XOEPL).
- b) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2025eko maiatzaren 13koa, izaera orokorreko xedapen arautzaileak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredua onartzen duena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera (maiatzaren 20ko 54/2025 Ebazpena, 2025eko maiatzaren 29ko EHAA, 100. zk.).
- c) Lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren 2023ko uztailaren 11ko Erabakiaren bidez onartuak (uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpena, abuztuaren 7ko EHAA, 149. zk.).

ORDEN DE LA VICEPRESIDENTA PRIMERA DEL GOBIERNO Y CONSEJERA DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA, POR LA QUE SE ACUERDA INICIAR EL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE LEY DEL SISTEMA CULTURAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

La cultura constituye un pilar esencial para la cohesión social y el desarrollo sostenible de Euskadi. El ecosistema cultural vasco ha alcanzado un alto nivel de madurez, con redes de equipamientos, planificación estratégica y agentes públicos y privados. Sin embargo, la ausencia de una norma general que ordene el conjunto del sistema cultural exige la elaboración de una Ley que proporcione un marco jurídico-político estable y que garantice la adecuada coordinación interinstitucional y la cooperación pública entre agentes tanto públicos como privados.

El procedimiento de elaboración y tramitación de proyecto de decreto deberá ajustarse a las prescripciones contenidas en las siguientes normas:

- a) Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (LPEDCG).
- b) Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (Resolución 54/2025, de 20 de mayo, BOPV n.º 100, 29 de mayo de 2025).
- c) Directrices para la elaboración de proyectos de Ley, Decretos, Órdenes y Resoluciones aprobadas por Acuerdo de Consejo de Gobierno de 11 de julio de 2023 (Resolución 78/2023, de 28 de julio, BOPV n.º 149, de 7 de agosto).





lido horretan, XOEPLren 12.1 artikulua ezartzen duenez, proiektatutako arau-xedapenaren gaiaren gainean eskumena duen saileko titularraren aginduz hasiko da prozedura hori. Testu hori da araua egiteko prozeduraren oinarrizko oinarria eta ardatz nagusia.

En ese sentido, la LPEDCG establece en su artículo 12.1 que el citado procedimiento se iniciará por Orden de la persona titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que verse la disposición normativa proyectada, texto que se erige en fundamento básico y eje central del procedimiento de elaboración de la norma.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta XOEPLren 13.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, hasteko aginduak bete beharreko edukia zehazten baitu, honako hau

En atención a lo expuesto y de conformidad con lo establecido en el artículo 13.1 LPEDCG, que especifica el contenido necesario que habrá de observar la orden de inicio,

EBAZTEN DUT:**RESUELVO:**

Bakarra. – Hasiera ematea Euskadiko Kultura Sistemaren Lege Aurreproiektua egiteko prozedurari.

Único. – Iniciar el procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Ley del Sistema Cultural de Euskadi.

Vitoria-Gasteizen,
En Vitoria-Gasteiz,

Sin./Fdo.: IBONE BENGOTXEA OTAOLEA

**JAURLARITZAKO LEHENENGO LEHENDAKARIORDEA ETA KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKAKO SAILBURUA
VICEPRESIDENTA PRIMERA DEL GOBIERNO Y CONSEJERA DE CULTURA Y POLÍTICA
LINGÜÍSTICA**

Eranskina / anexo

Agindua, Jaurilaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen baita hasiera ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura-sistemaren lege-aurreproiektua egiteko prozedurari.

Orden de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística, por la que se acuerda iniciar el procedimiento de elaboración del anteproyecto de Ley del Sistema Cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Lehenengoa.- Arauaren xedea eta helburua.

Hasteko Agindu honek aztergai duen Lege-proiektuaren xedea eta helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-sistemaren antolaketarako eta funtzionamendurako arau-esparrua ezartzea. Arau esparru horretan, arte eta kultura-sorkuntza, kudeaketa eta ekoizpenaren garapen askea errazteko beharrezkoak diren berme instituzionalak, materialak, ekonomikoak eta juridikoak arautuko dira, bai eta Euskadiko kultura-ondarearen babesa, kontserbazioa, zaharberritzea, ezagutza, ikerketa, hedapena eta gozamena bultzatzeko eta pertsonen kultura-bizitzan berdintasun-baldintzetan eta diskriminaziorik gabe irispidea izan eta parte har dezaten sustatzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Sistemaren helburua da lankidetzarako oinarriak ezartzea, bai eta erakundeen eta pertsonen arteko lankidetzaren bultzatzea eta haien arteko koordinazioa sustatu eta bultzatzea ere; hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsonen eskubide kulturalak baldintza berdinetan eta inolako diskriminaziorik gabe eta ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handienarekin balia ditzaten bermatzeko.

Bigarrena.- Proposamenaren egokitasuna, arautzeko aukerak eta arau berriaren behararen justifikazioa.

Euskal kultura ekosistemak heldutasun maila handia lortu du azkenengo bi hamarkadetan hainbat azpisektoretan instituzionalizazioari, ekipamendu-sareei, plangintzari eta neurri estrategikoei esker.

Gaur egun, arau-multzo sakabanatu bat dago, arlo espezifikoak arautzen dituen (ondarea, museoak, liburutegiak, artxiboak), baina ez dago kultura sistema osoa antolatzen duen arau orokorrik.

Legeak jauzi kualitatiboa eman nahi du, kultura motor sozial eta ekonomiko gisa sendotuz, egungo erronkekin (digitalizazioa, jasangarritasuna, eskubide kulturalak) eta 2030 Agendarekin lerrokatuta.

Primero. - Objeto y finalidad de la norma.

El Proyecto de Ley del que trata esta Orden de Inicio tiene por objeto y finalidad el establecimiento del marco normativo para la organización y funcionamiento del Sistema Cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el que se regulen las garantías institucionales, materiales, económicas y jurídicas necesarias para facilitar el libre desarrollo de la creación, gestión y producción artística y cultural, para impulsar la protección, conservación, restauración, conocimiento, investigación, difusión y disfrute del patrimonio cultural de Euskadi, así como para promover el acceso y la participación de las personas en la vida cultural en condiciones de igualdad y no discriminación.

El Sistema Cultural de la Comunidad Autónoma de Euskadi tiene por finalidad establecer las bases para la colaboración, así como favorecer la cooperación entre las entidades y personas y fomentar e impulsar la coordinación entre ellas; todo ello en aras de garantizar a las personas el pleno ejercicio de los derechos culturales en igualdad de condiciones y sin discriminación alguna en el País Vasco con el mayor grado de eficacia y eficiencia.

Segundo. - Oportunidad de la propuesta, alternativas de regulación y justificación de la necesidad de la nueva norma.

El ecosistema cultural vasco ha alcanzado un alto nivel de madurez en las últimas dos décadas, gracias a la institucionalización, redes de equipamientos, planificación y medidas estratégicas en distintos subsectores.

Actualmente existe un conjunto normativo disperso que regula áreas específicas (patrimonio, museos, bibliotecas, archivos), pero no hay una norma general que ordene el sistema cultural en su conjunto.

La ley busca dar un salto cualitativo, consolidando la cultura como motor social y económico, alineada con los retos contemporáneos (digitalización, sostenibilidad, derechos culturales) y con la Agenda 2030.



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 5.2 d) artikulua xedatzen duenez, sailburuordeek, beren jardun-eremuetan, besteak beste, xedapen-proiektuak proposatzeko ahalmena izango dute sailburuari, ezarritako jardun-politikaren arabera.

El artículo 5.2 d) del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, determina que las Viceconsejeras o Viceconsejeros ostentarán en sus ámbitos de actuación la facultad, entre otras, de proponer a la Consejera o Consejero proyectos de disposiciones, de conformidad con la política de actuación establecida.

Bestaldetik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan ezarritako eskumenak baliatzea, bai eta indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera Sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloen esparruan.

Por otro lado, de acuerdo con lo previsto en el artículo 4.2 del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, corresponde a la Consejera o Consejero de Cultura y Política Lingüística el ejercicio de las competencias establecidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, y cuantas otras le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento de conformidad con el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Halaber, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.8 artikulua ezartzen duenez, sailburuei dagokie beren eskumenekoak diren gaitan lege proiektuak proposatzea, Jaurlaritzak onar ditzan.

Asimismo, el artículo 26.8 de la ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, establece que corresponde a los/as Consejeros/as proponer para su aprobación por el Gobierno Proyectos de Ley en materias propias de su competencia.

Sektore-erregulazioekin (ondarea, museoak, artxiboak) jarraitzea ez da arau orokor baten alternatiba, zatikatze handiagoa eta koordinazio- eta koherentzia falta izateko arriskua konponduko bailitzateke.

Continuar con las regulaciones sectoriales (patrimonio, museos, archivos) no es alternativa a una norma de carácter general dado que se correría el riesgo de una mayor fragmentación y falta de coordinación y coherencia.

Legeak sistemaren kategoriara igotzen du kultura, eta funtsezko beste sistema batzuekin parekatzen du, hala nola hezkuntza sistemarekin edo osasun sistemarekin.

La ley eleva la cultura a la categoría de sistema, equiparándola a otros sistemas esenciales como el educativo o sanitario.

Horrela, uste da arau proiektua egitea Administrazioaren jardura beharrezkoa dela, eta ez dagoela lege-aurreproiektu hau onartzeaz bestelako erregulazio-alternatibarik.

De esta manera, se estima que la elaboración del proyecto de norma resulta una actuación necesaria de la Administración, no existiendo otra alternativa de regulación diferente a la aprobación del presente anteproyecto de Ley.

Hirugarrena.- Bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Tercero. - Viabilidad jurídica y material.

Lege-ekimen hau bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 10. artikuluan 17. apartatuan Euskal Autonomia Erkidegoari kulturaren arloan ematen dizkion eskumenen esparruan. Apartatu honetan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eksklusiboa du kulturaren

La iniciativa legal tiene su encaje en el marco de las competencias que el Estatuto de Autonomía del País Vasco otorga, en materia de Cultura, a la Comunidad Autónoma en el artículo 10 en su apartado 17. De conformidad con lo dispuesto en este apartado, la Comunidad Autónoma del País Vasco ostenta la competencia exclusiva en



arloan, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoa.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeek arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean ezarritako eskumen-araubideari dagokionez, eskumen autonomikoak 6. artikuluan du babesa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek eskumena baitute, Autonomia Estatutuaren arabera Autonomia Erkidegoari dagozkion gai guztietan, Estatutu horretan, aipatutako Legean edo ondorengoetan Lurralde Historikoetako Foru Organoei aitortzen edo esleitzen ez zaizkien gaietan, hain zuzen ere. Agindu horren bigarren paragrafoak dio, nolanahi ere, lege-mailako arauak emateko ahalmena Legebiltzarrari bakarrik dagokiola.

Era berean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. artikuluan xedatzen duenez, xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da prozedura.

Egiten hasiko den arauak kulturari eragiten dio, eta hori dela eta kontuan hartu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretua eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretua.

Laugarrena.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Badago kulturaren arloko lege arrunten multzo bat —Euskadiko Museoei buruzko abenduaren 1eko 7/2006 Legea; Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legea; Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralari eta Dokumentu-ondareari buruzko ekainaren 23ko 5/2022 Legea—, eta horiek ez dituzte arau berriak ukitzen.

Lege berriak ez du inolako araurik aldatzen edo indargabetzen; aitzitik, esparru komun batean antolatzen ditu, bikoiztasunak saihestuz eta erakundeek arteko lankidetzarako mekanismoak ezarriz.

materia de Cultura, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.2 de la Constitución.

En lo relativo al régimen competencial establecido en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, la competencia autonómica tiene amparo en el artículo 6 que dispone la competencia de las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma para la legislación y la ejecución en todas aquellas materias que, correspondiendo a la Comunidad Autónoma según el Estatuto de Autonomía, no se reconozcan o atribuyan en dicho Estatuto, la citada Ley u otras posteriores, a los Órganos Forales de los Territorios Históricos. El apartado segundo de dicho precepto señala que, en todo caso, la facultad de dictar normas con rango de Ley corresponde en exclusiva al Parlamento.

Asimismo, la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, determina en su artículo 12 que el procedimiento se iniciará por orden del Consejero o Consejera titular del departamento competente por razón de la materia sobre la que versen.

La norma cuya elaboración se inicia afecta a la cultura, es por ello que hay que tener en cuenta el Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos; y el Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

Cuarto. - Repercusión en el Ordenamiento Jurídico.

Existe un conjunto de leyes ordinarias en materia de cultura —Ley 7/2006, de 1 de diciembre, de Museos de Euskadi; Ley 11/2007, de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi; Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco; y Ley 5/2022, de 23 de junio, de Gestión Documental Integral y Patrimonio Documental de la Comunidad Autónoma del País Vasco— que no se ven afectadas por la nueva normativa.

La nueva ley ni modifica ni deroga norma alguna, sino que las articula bajo un marco común, evitando duplicidades y estableciendo mecanismos de cooperación interinstitucional.

Horrela, legeak honako hauek ahalbidetuko ditu: sektore-arauetan sakabanatutako irizpideak bateratzea (ondarea, arte eszenikoak, kultura-industriak, euskara, etab.); kultura-politiketarako esparru komun bat ezartzea eta printzipio gidariak sartzea (kulturarako sarbidea, aniztasuna, iraunkortasuna, digitalizazioa). Horrek guztiak arau-koherentzia sortuko du eta eskubide kulturalen aplikazioa erraztuko du.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak lege honetan berariaz aurreikusitako erregelamenduzko xedapenak eman ahal eta beharko ditu.

Bosgarrena.- Generoaren araberako eragina.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1.c) artikulua ezartzen duenez, kontuan hartuko dira generoaren araberako eraginaren aurretiazko azterketak, eta proiektutako arauak genero ikuspegitik duen garrantziari buruzko lehen zenbatespen arrazoitu bat jasoko da.

Ilido berekoa da Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 19. eta 20. artikulua, generoaren araberako inaktuaren aurretiazko ebaluazioari eta desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko neurriak buruzkoak.

Azkenik, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiak generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatze eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartu zituen.

Alde batera utzi gabe dekretu-proiektuaren memoria ofizialarekin batera genero-eraginari buruzko azterlan xehatua aurkeztu behar dela, adierazi behar da badagoela genero-inpaktu kulturalaren eremuan. Hori kontuan hartuta, lege honen testuak berdintasunaren arloko hainbat neurri jasotzen ditu artikuluetan, printzipio orokorretatik hasi eta arte eta kultura sorkuntzari eta ekoizpenari buruzko betebeharretaraino. Neurri horiek generoaren araberako eraginari buruzko txostenean zehaztuko dira.

Seigarrena.- Aurrekontuan izango duen eragina.

Arau-proposamenak ez du eduki ekonomikorik, eta, beraz, ez du eraginik aurrekontuan.

De esta forma la ley permitirá: unificar criterios dispersos en normas sectoriales (patrimonio, artes escénicas, industrias culturales, euskera, etc.); establecer un marco común para políticas culturales e introducir principios rectores (acceso a la cultura, diversidad, sostenibilidad, digitalización). Todo esto generará coherencia normativa y facilitará la aplicación de los derechos culturales.

Por otro lado, el Gobierno Vasco podrá y deberá dictar disposiciones reglamentarias expresamente previstas en la presente Ley.

Quinto. - Impacto en función del género.

El artículo 13.1.c) de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que se tendrán en cuenta los análisis preliminares de impacto en función del género, y se incluirá una primera estimación motivada sobre la relevancia desde el punto de vista del género de la norma proyectada.

En este mismo sentido se pronuncia el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, en sus artículos 19 y 20, con relación a la evaluación previa del impacto en función del género y medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad.

Por último, el Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 21 de agosto de 2012, aprueba las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres.

Sin perjuicio de que la memoria oficial del proyecto de Decreto deba ir acompañada de un estudio detallado sobre el impacto de género, debe señalarse que existe impacto de género en el ámbito cultural. Atendiendo a ello, el texto de la presente Ley incorpora en su articulado diversas medidas en materia de igualdad desde los Principios generales hasta los Deberes relativos a la creación y producción artística y cultural. Dichas medidas se detallarán en el correspondiente informe de impacto en función del género.

Sexto. - Incidencia presupuestaria.

La propuesta normativa no tiene contenido económico y, por tanto, carece de incidencia presupuestaria.



Zazpigarrena.- Administrazio-kargak.

Proposatutako araua indarrean jartzearen ondoriozko administrazio-kargak kultura arloko eginkizunak bere gain hartzen dituen administrazio-organismoaren zerbitzuek hartuko dituzte beren gain, eta ez da aurreikusten xede horretarako baliabide material edo giza baliabide espezifikoak behar direnik.

Zortzigarrena.- Eragina enpresa txiki eta ertainetan.

Enpresa txiki eta ertainen gaineko eragina minimoa dela baloratzen da eta horren azterketa egingo da arau-eraginaren azterketari dagokion memorian edo Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako enpresa-inpaktuaren txostenaren bidez.

Bederatzigarrena.- Xedapenak uki ditzakeen subjektuak eta antolakunderik adierazgarrienak.

Subjektu interesdun gisa identifikatzen dira kultura-sektoreetako elkarteak eta banakako profesionalak.

Administrazio publikoen artean: Eusko Jaurlaritza bera, foru-aldundiak, udalak (bereiziki kultura ekipamenduak kudeatzen dituztenak: museoak, liburutegiak, antzokiak). Kultura fundazioak (Guggenheim Museoa Fundazioa, Sancho el Sabio Fundazioa...).

Hamargarrena.- Idazketa-sistema.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, dekretu-proiektua bi hizkuntzetan idatziko da publizitate ofizialaren ondorioetarako. Horrez gain, XOEPLren 5.4 artikulua arabera, araugintza-prozedura elebiduna izango da prozedura osoan, eta araua egiten parte hartzen dutenen eta haren hartzaileen hizkuntza-eskubideak bermatuko dira.

Helburu horrekin, testua IVAPEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) itzuliko du, arau-xedapen orokorrak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren Erabiltzailearen Eskuliburuan (i), Lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idatzeko neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian (ii) eta XOEPLren 4j), 5., 14.3, 14.5 eta 27.3 artikuluetan (iii) aurreikusten den bezala.

Séptimo.- Cargas administrativas.

Las cargas administrativas derivadas de la entrada en vigor de la norma propuesta serán asumidas por los propios servicios del órgano administrativo que asuma las funciones en materia de cultura, sin que se prevea que resulte necesaria la dotación de recursos materiales o humanos específicos para dicho fin.

Octavo.- Impacto en las pequeñas y medianas empresas.

El impacto sobre las pymes se valora como mínimo y se realizará un examen de ello en la correspondiente memoria del análisis de impacto normativo o mediante el informe de impacto de empresa, previsto en el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco.

Noveno.- Sujetos y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la disposición.

Se identifican como sujetos interesados, a las asociaciones y profesionales individuales de los distintos sectores culturales.

Entre las administraciones públicas: el propio Gobierno Vasco, las diputaciones forales, ayuntamientos (especialmente los que gestionan equipamientos culturales: museos, bibliotecas, teatros). Fundaciones culturales (Fundación Museo Guggenheim, Fundación Sancho el Sabio...).

Décimo.- Sistema de redacción.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, el proyecto de decreto se redactará de forma bilingüe a efectos de publicidad oficial. Además, de conformidad con el artículo 5.4 de la LPEDCG, el procedimiento normativo será bilingüe a lo largo de todo el procedimiento, garantizándose los derechos lingüísticos de quienes participan en la elaboración de la norma y sus destinatarios.

Con dicho objeto, el sistema empleado será la traducción del texto por el Servicio Oficial de Traductores del IVAP (IZO), tal y como se prevé (i) en el Manual de Usuario de la aplicación informática para la tramitación electrónica de las disposiciones normativas de carácter general, (ii) en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 14 de mayo de 2013, por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo,

decreto u orden y (iii) en los artículos 4j), 5, 14.3, 14.5 y 27.3 de la LPEDCG.

Hamaikagarrena.- Entzunaldia eta Undécimo. - Audiencia e información pública.
jendaurreko informazioa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitako entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea egingo da, ekarpenak egin ahal izan ditzaten.

Se realizará el trámite de audiencia e información pública previsto en el artículo 17 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, a los efectos de que puedan realizar las correspondientes aportaciones.

Hamabigarrena.- Egin beharreko izapideak eta txostenak.

Lege-proiektua XOEPLn eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egingo da, herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari dagokionez.

Duodécimo.-. Trámites e informes procedentes.

La elaboración del proyecto de Ley se efectuará de conformidad con lo previsto en la LPEDCG, así como en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en lo referente a la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango de ley y reglamentos.

Era berean, kontuan hartuko da Gobernu Kontseiluaren 2025eko maiatzaren 13ko Erabakia, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko oinarritzko eredua onartzen duena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearekin bat etorritz.

Del mismo modo, se tendrá en cuenta el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de 13 de mayo de 2025, por el que se aprueba el Modelo Básico de Tramitación del procedimiento de elaboración de las Disposiciones Normativas de Carácter General, de acuerdo con la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Lege proiektuaren testua idazteko, agindu honen edukia hartuko da kontuan, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara ondoen egokitzen diren aukerak, bai eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezkotasuna bermatzeko eskatzen diren kontsulten eta txostenen emaitzak ere.

La redacción del texto del proyecto de Ley se realizará atendiendo al contenido de esta Orden, teniendo en cuenta las opciones que mejor se acomoden a los objetivos perseguidos y, en su caso, al resultado de las consultas e informes que se soliciten para garantizar el acierto y legalidad de la regulación prevista.

Proiektua idatzi ondoren, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariordea eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak onartu beharko du aldeaz aurretik.

Una vez redactado el proyecto se someterá a aprobación previa de la Vicepresidenta Primera del Gobierno y Consejera de Cultura y Política Lingüística

Arau-inpaktuaren azterketa-memoria bat idatziko da, XOEPLren 15 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Se redactará la correspondiente memoria de análisis de impacto normativo, de conformidad con lo previsto en el artículo 15 de la LPEDCG.

Prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie aurreikusitako erregulazioak zuzenean eragin diezaikekeen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioei, XOEPLren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Se dará participación en el procedimiento a las Administraciones de la Comunidad Autónoma que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista, de conformidad con lo previsto en el artículo 18 de la LPEDCG.

Nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

Se solicitarán los siguientes informes preceptivos:



- | | |
|--|---|
| <p>a) Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren txostena, xedapen orokorrekin euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan xedatutakoa betetzeko.</p> | <p>a) Informe de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura y Política Lingüística sobre la incidencia de las disposiciones de carácter general en la normalización del uso del euskera y su adecuación a la normativa vigente en materia lingüística, para dar cumplimiento a lo dispuesto en el Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.</p> |
| <p>b) Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 21.1.c) artikuluan arabera.</p> | <p>b) Informe de la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación Administrativa, de conformidad con el artículo 21.1.c) del Decreto 317/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno.</p> |
| <p>c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena, honako hauetan ezarritakoaren arabera: (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25. Artikulua, (ii) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretua, (iii) XOEPLren 23. artikulua; eta (iv) Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 313/2024 Dekretuaren 7.a) artikulua.</p> | <p>c) Informe de control económico-normativo de la Oficina de Control económico, de conformidad con lo establecido en (i) el artículo 25 del Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, (ii) el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, (iii) el artículo 23 de la LPEDCG y (iv) el artículo 7.a) del Decreto 313/2024, de 29 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Hacienda y Finanzas.</p> |
| <p>d) Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3. artikuluan jasotakoaren arabera.</p> | <p>d) Informe del Consejo Económico y Social Vasco, de conformidad con lo recogido en el artículo 3 de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco.</p> |
| <p>e) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.</p> | <p>e) Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.</p> |
| <p>f) Genero-eraginari buruzko txostena, bat etorritik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bateginarekin eta Gobernu</p> | <p>f) Informe de impacto de género, de conformidad con el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y con las Directrices</p> |



Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bidez onartutako jarraibideekin, prozeduran Generoaren arabera Eraginari buruzko Txostena sartuko da, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak horri buruzko txostena egin beharko du.

aprobadas por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 21 de agosto de 2012, el procedimiento incorporará el Informe de Impacto en Función del Género, que deberá ser informado por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

Dekretu-proiektua izapidetzen amaitu ondoren, prozedura osoaren memoria labur bat egingo da, XOEPLren 24.2 artikuluan adierazitako edukiarekin, aurrekariak eta egindako izapideak aipatuz.

Una vez finalizada la tramitación del proyecto de decreto, se elaborará una memoria sucinta de todo el procedimiento con el contenido que señala el artículo 24.2 de la LPEDCG, reseñando los antecedentes y trámites realizados.

Lantzeko prozedura amaituta, Lege-proiektua Gobernu Kontseiluak onartu beharko du azken aldiz, XOEPLren 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Finalizado el procedimiento de elaboración, el proyecto de Ley se someterá a la aprobación final por el Consejo de Gobierno, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 de la LPEDCG.

Hamahirugarrena.- Instrukzioa agindu zaion administrazio-organoa.

Decimotercero. - Órgano administrativo al que se encomienda la instrucción.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, sail horretako sailburuari esleitzen zaizkio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikuluan ezarritako eskumenak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera Sailari dagozkion egiteko eta jardun-arloetan indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkionak ere.

De conformidad con lo previsto en el artículo 4.2 del Decreto 389/2024, de 26 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística, se asigna a la consejera o consejero de este Departamento el ejercicio de las competencias establecidas en el artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de Gobierno, así como cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Hamalauugarrena.- Urteko Araugintza Plana.

Decimocuarto. - Plan Anual Normativo.

Euskadiko Kultura Sistemaren Legea Eusko Jaurlaritzaren 2026ko Urteko Araugintza Planean sartuta dago.

La Ley del Sistema Cultural de Euskadi está incluida en el Plan Anual Normativo del Gobierno Vasco correspondiente al año 2026.

Hamabosgarrena.- Argitalpena.

Decimoquinto. - Publicación.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritakoaren arabera, hasteko agindu hau lege horretan aurreikusitako prozeduraren arabera argitaratuko da.

De conformidad con lo establecido en la Ley 6/2022, de 30 de junio, la presente Orden de Inicio será publicada conforme al procedimiento previsto en dicha Ley.

Proiektuaren testua Legegunean argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikuluan xedatutako publizitate-agindua betetzeko.

El texto del proyecto se publicará en Legegunea, para dar cumplimiento al mandato de publicidad dispuesto en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Azkenik, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 64. artikuluan arabera, arau-

Finalmente, de acuerdo con el artículo 64 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, sobre Ley de

proiektu hau onartu ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Gobierno, una vez aprobado, el presente proyecto de norma se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.